



LESAKA

Ordenantzaren behin betiko onespena


Lesakako Udalak, 2015eko urriaren 30ean eginiko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen *kamioien aparkalekua arautzen duen ordenantza eta prezio publikoen ezarpena*.

Jendaurreko epealdia honako leku hauetan argituratutako ediktuen bitartez egin zen: Udaleko iragarki oholean eta 229. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2015eko azaroaren 16koan. Eta ezarritako hogeita hamar eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Beraz, 6/1990 Foru Legeko 325.1.c) artikulua (15/2002 Foru Legeak aldatua) xedaturikoarekin bat, ordenantza behin betiko onetsizat jotzen da.

Horrenbertzez, haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

Lesakan, 2015eko abenduaren 24an



Alkatea,

Jose Luis Echegaray Andueza



LESAKA

Kamioiendako aparkalekua arautzen duen ordenantza, eta prezio publikoen ezarpena

Zioen azalpena

Lesakako herriguneak leku gutti du kamioiak aparkatzeko. Bertzalde, kontuan hartuta herriguneak duen luzanga formak, zeharbidearen inguruan egituratua, behartzen du kamioiek maiz herria gurutzatu behar izatea, eta trafikoa areagotu egiten du.

Azaro horiek arintzeko, beharrezko ikusi da kamioendako aparkaleku bat ezartzea Bekoerrotan inguruan, herrigunera sartu baino lehen dagoena (Zambrako lehengo instalazioen ondoan). Horrela, kamioiek han aparkatuko dute, herrigunetik ibiltzeko beharrik izan gabe.

Atariko kapitulua

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xede da Lesakako Zambra inguruko kamioien aparkalekuaren erabilpena arautzea eta kontzeptu horri dagokion prezio publikoa ezartzea.

2. artikulua. Oinarria

Ordenantza hau honako legeek xedatutakoaren babesean onesten da: uztailaren 2ko Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 99. eta 262. artikulua; martxoaren 10eko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria, eta Nafarroako Entitate Lokalen Ondasun Arautegiko 93. artikulua eta hurrengoak.

3. Artikulua. Ordenantzaren esparrua

Ordenantza honen arauak aplikagarriak izanen dira Bekoerrotan dagoen kamioendako aparkalekuan, Zambra ondoan. Bertan, aparkatzeko lekuak behar bezala seinaleztatuak dira.

I. kapitulua. Aparkalekua erabiltzeko arauak

4. artikulua. Ordenantza honetan arautzen den aparkalekua soilik kamioiek eta autobusek erabiltzeko izanen da. Jabari publikoko ondasuna da, eta titulartasuna Lesakako Udalarri dagokio.

5. artikulua. Aparkalekua erabiltzeko interesa dutenek lizentzia Udalean eskuratu beharko dute. Lizentzia hori emanen da aparkaleku bakoitzaren erabilpen arrunt eta pribaturako, Nafarroako Entitate Lokalen Ondasun Arautegiko 93. artikulua arautzen duen moduan, kontuan hartuta haren erabilpenaren maiztasuna.

Lizentziak urte luzagarri baterako emanen dira, prekarioan eta hirugarrenei kalterik egin gabe, eta emakidadunak nahitaez bete beharko dituen baldintzekin. Eta lizentziak errebokatu ahal izanen dira edozein momentutan, ez baldin badira baldintzak betetzen edota interes publikoko arrazoiengatik.

6. artikulua. Lizentzia ematearekin batera, eta ematen zaion urteari dagokion prezio publikoa ordaintzen duenean, emakidadunaren eskura jarriko dira ibilgailuaren identifikazio-txartela eta dagokion aparkalekua.

7. artikulua. Lizentzia lortu ahal izanen dute soilik Lesakan altan dauden ibilgailuek, zirkulazioaren udal zergan edo Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan, eta partzela propiorik ez dutenek aparkaleku gisa erabiltzeko moduan. Aparkalekurik libre geldituko balira, dagokion lizentzia eman ahal izanen da, aparkaleku gisa erabiltzeko egokituriko partzela baten jabe izan arren.

8. artikulua. Lizentzia lortzen duten eskatzaileek aparkalekua erabiliko beharko dute kontuan hartuta zertarako den, eta beraietan kalterik eragin gabe, eta erabilpen normalak, egokiak eta arrazoidunak eragin dezakeen desgastea baztertuta, kontuan hartuta zertarako eskatu zen lizentzia.





9. artikulua. Udal aparkalekua ezin izanen da inola ere erabili lizentzia eman zen helburuz bertzerako.

10. artikulua. Aparkalekua erabili nahi duten pertsonak edo entitateek Udalari eginen diote eskaera idatziz, norberaren datuak eta ibilgailuarenak adierazita.

11. artikulua. Lizentziaren iraunaldia amaitzen denean, emakidadunak horren berri emanen dio Udalari.

Udalak egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ahal izanen ditu ordenantza honetan eta emakidadunentzako lizentzietan ezarri diren baldintzak eta betebeharrak betetze aldera.

II. kapitulua. Erantzukizunak, arau-hausteak eta zehapenak

12. artikulua. Kamioien aparkalekuak erabiltzeko emakidadunek edota lizentziaren titularrek zuhurtziagabekeriaz edo zabarkeriaz jokatzegatik haietan eragiten dituzten kalte-galeren erantzukizundunak izanen dira.

13. artikulua. Aparkaleku bera erabiltzeko lizentziaren jabeak bat baino gehiago izanez gero, haien guztiek erantzunen dute, elkarrekin eta solidarioki, prezio publikoak ordaintzeaz, eta, hala bada, aparkalekuan eta bere instalazioetan eraginiko kalte eta galeren kalte-ordainketaz eta ezarriko diren zehapenez.

14. artikulua. Arau-haustetzat joko da kamioien aparkaleku erabilera ez den bertze edozein jarduera, bereziki ingurunea degradatu eta ingurumena kaltetzen dutenak. Arau-hauste larritzat joko dira, bertzeak bertze, edozein gauza bertan pilatu edo uztea, eta aparkalekua zikinduko duen edozein jarduera mekanikoa egitea.

15. artikulua. Goian aipaturiko arau-hausteak gertatzen badira, zigorra Lesakako Bekoerrotan inguruko kamioien aparkalekua erabiltzeko lizentzia kentzea izanen da.

16. artikulua. Aitzineko artikuluetan xedaturikoa betetzeko ezartzen ahal diren zehapenak independenteak izanen dira dagozkion kalte eta galeren ordainketetatik.

Aitzineko artikuluetan aipatu diren erantzukizunak eta zehapenak premiamenduaren bidez gauzatuko dira.

III kapitulua. Prezio publikoak kamioiendako udal aparkalekua erabiltzeko.

17. artikulua. Prezio publikoaren zergapeko egitatea honakoak sortzen du: pertsona fisiko edo juridikoek kamioien udal aparkalekua erabiltzea, udal lizentzia erdietsi ondoren.

18. artikulua. Subjektu pasiboa

Prezio publiko hauen subjektu pasiboak honakoak izanen dira: Udaletik lizentzia eskuratu ondoren, kamioien aparkalekua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

19. artikulua. Karga-oinarria.

Karga-oinarria kamioien aparkalekua erabiltzen den hilabete kopurua izanen da.

20. artikulua. Tarifak

Ordenantza honen eranskinean ageri direnak dira.


21. artikulua: Zerga kuota

Zerga kuota karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuzetik sortuko da.

22. artikulua. Sortzapena

Prezio publikoa sortuko da kamioien aparkalekua erabiltzeko lizentzia eskatzen den unean.

IV. kapitulua – Kudeatzeko arauak





23. artikulua. Aparkatzeagatiko tasaren kuota Udal Diruzaintzan ordainduko da, Udaleko kontu-hartzaileak aldeztuz aitzinetik prestaturiko ordain agiriarekin.

24. artikulua. Ordainarazpen honen izaera dela eta, inoiz ere ez da kuoten zenbatekoa itzuliko, eta ez da onartuko ordaindu izanaren agiriak bertze erabiltzaileri eskualdatzea.

V. kapitulua. Arau-hauste eta zigorrak

25. artikulua. Arau-hauste eta dagozkien zigorrei dagokienez, Udaleko osoko bilkurak 1997ko irailaren 12an onetsiriko Ordenantza Fiskal Orokorrak diotenaren menpe egonen da.

Azken xedapena

Ordenantza honek indarra hartuko du uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoak, aurreikusten dituen baldintzak betetakoan.

Tarifen eranskina

1 – Herri honetan ibilgailuen gaineko zirkulazio zerga edota jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzen duten ibilgailuak: 300 € urtean.

Lesakan, 2015eko abenduaren 24an
Alkatea,



Jose Luis Echeagaray Andueza